


14. Newsletterra Abendua 2024

Euskadiko Behatoki Turistikoak **2024ko urriko Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari** buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, **2024ko urtariletik urrira metatua eta araututako turismo-ostatu guztiei buruzkoak**. Gainera, **Gabonetan Euskadira etortzen diren aisialdiko turistaren profila** eta **bidaiaren horren ezaugarriak** aurkezten ditugu.

GABONETAN EUSKADIRA ETORTZEN DIREN AISIALDIKO TURISTAK

Euskadin Gabonetan egiten diren turismo-gaualdiek **urteko guztizkoaren %6,5a osatzen dute**. Aurreko urteetan, garai honetako turismo-fluxua handiagoa izan da, urteko guztizko turisten ia %10era iritsi baita.



Informazio-iturria: "IBILTUR 2023, turistaren profila eta portaera" estatistika-eragiketa ofiziala. Enfokatur Euskadiko Turismo Behatokia. Basquetour. Eusko Jaurritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.



Gabonetan bisitatzen gaituztenen %83a merkatu nazionaletik dator. Merkatu igorleak xehetasunez aztertuz gero, lehenik eta behin **barne merkatua** nabarmentzen da (**%20**), ondoren **Madrilgo Erkidegoa (%15)**, **Katalunia (%13)**, eta **inguruko autonomia erkidegoak (%10)**.

%71a auto pribatua edo alokatutakoan iristen da Euskadira, eta batez beste **3 gau** igarotzen dituzte.

Gabonetan bisitatzen gaituztenen **batez besteko adina 47 urtekoa** da, eta nagusiki **bikotearekin** etortzen dira (%56).

la guztiek hoteletan hartzen dute ostatu (%90), eta **Donostia** da gaua igarotzeko aukeraturako helmuga nagusia (**%34**).

Informazio gehiago [IBILTUR AISIALDIA GABONETAN EUSKADIRA BISITA](#) fitxan, [IBILTUR AISIALDIA txosten orokorrean](#), eta [SIT Euskadi](#) datu-panelean.

2024KO URRIA



Euskadik **urrian eguneko plazzen eskaintza handiagoa** erregistratu du, **+%2,5** (60.103), eta **eskari-adierazlearen hazkundea** 2023ko urriarekin alderatuta: **gaualdiak +%0,6** (871.010), eta **sarrerak +%1,5** (425.433). Aldiz, **plazzen okupazio-mailak behera** egin du, **-%1,3** (39,10%).



Hotelak	%2,6	Vitoria-Gasteiz	%2,8
Nekazal turismoa	%5,6	Bilbao	%2,4
Kanpinak	%7,5	Donostia	%1,7
Apartamentu turistikoak	%7	Euskal Kostaldea	%10,7
Aterpebeak turistikoak	%4,1	Mendi eta haranak	%3,8
		Arabako Errioxa	%4,2

Hotelek, Euskadiko eguneko plazzen guztizkoaren %60 ordezkatzen dute urri honetan, **plazzen eskaintza, bisitari-sarrerak eta gaualdiak handituz**, baina **plazzen okupazio-mailak behera** egin du (-%2,6). **Turismo-aterpetxeek**, berriz, urriaren eskaintza eta eskari-adierazle guztietan **igoera handiak izan dituzte, plazzen okupazio-mailan izan ezik (-%4,1)**. Apartamentu turistikoek ere **urri gorakorra** izan dute. Landetxeei dagokienez, bisitari-sarreretan solilik hazi dira (+%4). Azkenik, kanpinak eskari- eta eskaintza-adierazle guztietan jaitsierak izan dituzte.



Helmuga guztiek eguneko plazzen eskaintza handitu dute urri honetan. Hala ere, eskari-adierazleei dagokienez, **Vitoria-Gasteizek eta Donostiak** bakarrik izan dituzte **igoerak bisitari-sarreretan eta gaualdietan**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO URRIA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2024 vs 2023	GAUALDIAK 2024 vs 2023
Madrilgo Erk.	%4,2	%2,3
Frantzia	%5,7	%1,8
Euskadi	%2,6	%3,6
Katalunia	%13	%14,7
Estatu Batuak	%8,6	%7,8
Alemania	%4,9	%5,9
Andaluzia	%7,5	%9,2
Errasuma Batua	%7,1	%9,5
Gaztela eta Leon	%13,8	%20
Valentziako Erk.	%7,9	%10,8

Merkatu nazionalak kuota handiagoa du nazioarteko merkatuarekin alderatuta, %50,3 vs %49,7. Hala ere, **nazioarteko merkatua hazi egin da (+%5,3)**, eta, aldiz, **merkatu nazionalak beherakada izan du (-%2,8)** 2023ko urriarekin alderatuta.

10 merkatu igorle nagusien artean, hazkundea izan dutenak honako hauek dira: **Madrilgo Erkidegoa, Frantzia, Estatu Batuak, Andaluzia, Errasuma Batua eta Gaztela eta Leon**. **Barne-merkatuari dagokionez, gaualdietan igoera** erregistratu da, baina **bisitari-sarreretan beherakada** izan da.

Rankingaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa** (%12,1), **Frantzia** (%9,7), **barne-merkatua** (Euskadi) (%9,4), **Katalunia** (%6,8) eta **Estatu Batuak** (%5,3).

2024KO URTARRILA-URRIA METATUA



Hoteles	0,1%	Vitoria-Gasteiz	1,5%
Agroturismos	0,8%	Bilbao	0,1%
Campings	1,1%	San Sebastián	0,2%
Apartamentos turísticos	5,6%	Costa Vasca	0,4%
Albergues turísticos	7,7%	Montes y valles	1,2%
		Rioja Alavesa	1,7%

2024ko urte metatuaren balantze positiboa Euskadirentzat: **sarrerak igo dira**, +%3,7 (4.137.302), **gaualdiak** +%3,7 (8.810.965), **plazzen okupazio-maila** +%3,2 (42,40%), eta **eguneko eskaintak** **plazak** ere igo dira, +%2,4 (58.465).

Ostatu-mota guztiek eskaintza eta eskari-adierazleetan hazkundea izan dute, **landa-ostatuaren kasuan izan ezik**. Azken hauek **plazzen eskaintza %1,9 murriztu** dute, **gaualdiak zertxobait jaitsi** dira (-%0,7), eta **bisitari-sarrerak ere beherakada** txikia izan dute (-%0,4).

Ostatu-mota guztiek eskaintza eta eskari-adierazleetan hazkundea izan dute, **landa-ostatuaren kasuan izan ezik**. Azken hauek **plazzen eskaintza %1,9 murriztu** dute, **gaualdiak zertxobait jaitsi** dira (-%0,7), eta **bisitari-sarrerak ere beherakada** txikia izan dute (-%0,4).

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO URTARRILA-URRIA METATUA.

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2024 vs 2023	GAUALDIAK 2024 vs 2023
Madrilgo Erk.	%1,4	%1,1
Frantzia	%1,1	%0,1
Euskadi	%3,9	%1,4
Katalunia	%2,8	%2,4
Estatu Batuak	%9,6	%9,3
Errasuma Batua	%12,8	%15,6
Alemania	%2,1	%3,8
Andaluzia	%11,9	%11,9
Gaztela eta Leon	%4,3	%5,3
Valentziako Erk.	%5,1	%5,3

Turisten %51 merkatu nazionaletik dator. Hala ere, **nazioarteko merkatuak urte arteko hazkunde handiagoa** izan du (%6,7), eta 2024an orain arte **serie historiko osoaren kuota handiena** lortu du, %49.

10 merkatu igorle nagusien artean lau nazioarteko merkatu daude: **Frantzia, Estatu Batuak, Errasuma Batua eta Alemania**. **Turisten kopuruan eta gaualdietan beherakada** izan duten merkatuak **barne-merkatu** (Euskadi) eta **Andaluzia** dira.

Rankingaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa** (%12), **Frantzia** (%10), **barne-merkatu** (Euskadi) (%9,4), **Katalunia** (%7,7) eta **Estatu Batuak** (%4,5).